

Adie berriro aurkeztuko da hauteskundeetan

Aurreko asteartean, hilak 9, Adie herritar plataformak maiatzeko udal hauteskundeetan aurkezteko beharrezko sinadurak batu zituen herritarren artean. Partidu politikoa ez denez, hauteskundeetan egon ahal izateko, aukeratu beharreko zinegotzi kopuruaren halako biren sinadurak bildu behar ditu, errolatutakoen artean. "Egia esan, ez dira sinadura asko behar – dio Josu San Pedro oraingo alkateak– baina guretzat bilketa honek aukera ematen digu aurkezteko herritarren babesa dugun edo ez jakiteko. 167 sinadura lortu ditugu. Eskertzeko kopurua da kontuan izanda 3.000 biztanletik beherako herria garela. Jendearen babesa jasotzeak aurrera egiteko indarra ematen digu".

Izan ere, egun gutxira arte plataformak ez duen batere argi bere etorkizuna. Oraingo alkatea eta hiru zinegotzik politikaren lehenengo lerroan egoteari utziko diote maiatzean, zortzi urtez gobernu taldean egon eta gero. "Azken hilabeteotan, sarritan pentsatu izan dugu gure proiektua aurten amaituko zela, izan ere, ez genuen erreleborik topatzen orain arteko lanarekin segitzeko", dio San Pedrok. Alabaina, azkenik lortu dute jende kopuru nahikoa, zerrenda osatu ahal izateko.

Zerrenda burua Pedromari Intxaurreaga da. Orain gutxi elkartu da Adiera, orain bi legealdi hasitako bideari jarraikotasuna emateko. Intxaurreagak dio hurrengo urteetan "gure filosofiarekin leial izaten segituko dugu. Gure herriarekin zerikusirik ez duenarekin loturarik gabe, Orokoko eta Orozkorako taldea gara, ez besterik, eta orozkoarren interesen alde egiten dugu, ez pentsaera politiko zehatz baten alde". "Zortzi urte hauetan Adiek Udala jendearentzako ireki du. Hurrengo legealdian oraindik hurbilagoa izatea nahi dugu, jendeak Udala bere etxetzat har dezala nahi dugu, etxe bat zein guk ilusioa eta ahalmena dugun gestionatzeko", dio.

Zerrenda-kideak:

1. Pedromari Intxaurreaga Sautua. 59 urte. Batxilerra. Baso-langilea.
2. Idoia Camacho Markina. 46 urte. Informazio Zientzietan Doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikerlaria.
3. Jose Urraza Aldayturriaga. 36 urte. Zuzenbidean Lizentziatua. Gipuzkoako Foru Ogasuneko Teknikaria. Oraingo zinegotzia.
4. Berenice Rodríguez García. 67 urte. Idazkaritza. Osakidetzako Zuzendaritzako idazkari erretiratua. Oraingo zinegotzia.
5. Juanjo Lazkano Ortueta. 50 urte. Ostalaritza eta Turismoko Teknikari espezialista. Sukaldaritza irakaslea.
6. Zuriñe Urkijo Arbaiza. 34 urte. Topografia-ingeniaritza Teknikoa. Itsasontzi-delineatzailea.
7. Montse Ibarrodo Sagastizabal. 51 urte. Informazio Zientzietan Lizentziatua. Diseinatzaile Grafikoa.
8. Isabel Orueta Solaun. 67 urte. Lehen Hezkuntza. Etxekoandrea.
9. Ander Jiménez Etxebarria. 32 urte. Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoa. Nekazaritza-ingeniaria.
10. Oiane Larrazabal Arbaiza. 40 urte. Psikologian Lizentziatua. Psikologoa.
11. Gurene Grande Martínez. 38 urte. Arte Ederretan Lizentziatua. Artisaua eta Irakaslea.
12. Irati Larrory Casaus. 29 urte. Haur Hezkuntzan Diplomatu, Lehen Hezkuntzan Graduatua. Irakaslea.
13. Garazi Intxaurreaga García. 30 urte. Haur Hezkuntzan Diplomatu, Heziketa Berezian Diplomatu, Lehen Hezkuntzan Graduatua. Irakaslea.